

KANALAK

Gure zerbitzua aurrera eramateko, ahalik gure klaseetako benetako beharra duten bezero gehiengana heltzea ezinbestekoa dela uste dugu, izan ere, gure enpresa bezeroei esker joango da handitzen. Hori dela eta, komunikazio-kanalak era egokian erabiltzea beharrezkoa izango da.

KOMUNIKAZIO-KANALAK:

- PUBLIZITATE-KANALAK

Gure zerbitzua ezagutzera eramateko pausu garrantzitsuena publizitatea da. Honetarako, baliabide eta kanal desberdinak erabiliko ditugu. Hasteko, ezinbestekoa iruditzen zaigu Urretxu-Zumarragako ikastetxeekin kontaktuan jartzea hauek gurasoei beraiek dauzkaten baliabideen bidez gure zerbitzuaren berri emateko. Horretarako zuzendariarekin hitz egiteaz gain, ikastetxe bakoitzeko orientazio departamentuarekin hitz egingo dugu bereziki, hauek baitira ikasle hauekin eta haien gurasoekin harreman zuzenean daudenak eta ikasle bakoitzaren beharrak ondo ezagutzen dituztenak. Haiek gomendatuko diete gure zerbitzua zuzenean gurasoei.

Publizitatearekin jarraituz, horretarako dagoen metodorik sinple eta zaharrenetako bat erabiliko dugu: publizitate-posterrak. Hauek herrian dauden publizitate askeko paneletan eskegiko ditugu pasatzen den edonork ikus ditzaten. Posterra erakargarria eta ulerterraza egingo dugu ikusten duen edonork erraz uler dezan eta bere atentzinoa posterrera bideratuta egon dadin. Ondokoa da gure publizitate-posterra:

Bestalde, bezeroentzako webgune bat ere eskainiko dugu. Webgune hau bezeroek gure zerbitzuei buruz jakin nahi duten edozer gauza nahi duten momentuan eta nahi duten lekutik eskuratu ahal izateko eskainiko dugu. Bertan gure informazioa hiru atal nagusietan banatuko dugu: Lehenengo atalean, nortzuk garen, gure helburu nagusiak, gure proiektuaren ideia eta garapena, non kokatuta gauden eta gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia agertuko dira. Bigarrenean, berriz, eskaintzen dugun zerbitzuaren funtzionamendua eta prezioa zehaztuko ditugu. Azkenik, hirugarren atalean, egutegi bat izango dugu libre ditugun orduak erakutsiz bezeroei ondoen etortzen zaien ordutegia aukeratu dezaten.



ELKARREKIN ERAIKIZ

LH 1 mailatik 2. Batxilergorarteko diagnostikatutako ikasleentzako partikular espezializatua

Hurrengo diagnostikoak dituzten ikasleekin arituko gara lanean:

1. Dislexia
2. AFN+H (Arreta faltaren nahasteak + hiperaktibitatea)
3. Autismoa

Informazio gehiago eskuragarri hurrengo webgunean:
www.elkarrekineraikiz.eus

- BEZEROEKIN HARREMANA EDUKITZEKO KANALAK SALMENTA AURRETIK

Webgune bat eduki arren eta bertan gure ordutegiak erakutsi arren, gure bezeroen ordutegiak finkatzeko ezinbestekoa izango da gure lokalera joatea edota telefonoz deitzea kurtsuan zehar ikasleak edukiko duen ordutegia zehazteko. Laburbilduz, gure bezeroekin edukiko ditugun harremanetarako kanalak, webgunea, telefonoa, eta gure lokalean emango den aurrez aurreko harremana izango dira.

- BEZEROEKIN HARREMANA EDUKITZEKO KANALAK SALMENTA ONDOREN

Hasteko, gure zerbitzua eskaintzen ari garen bitartean, komunikazio-kanaleetako bat gure egunerokotasunean ikasleekin klaseetan izango dugun harreman zuzena izango da.

Bestalde, gure bezeroen ordutegiak ondo zehaztu ondoren eta bakoitzarekin beraien beharrez hitz egin ondoren oso garrantzitsua iruditzen zaigu gure ikasleen jarraipena kontuan edukitzea eta honetan arreta jartzea; horretarako, noizbehinka gure bezeroen gurasoekin hitz egitea aukera onena iruditzen zaigu. Bilera hauetan gure helburua ikaslearen hobekuntzei edota aurrerapenei buruz gurasoei ohartaraztea da, bestalde, ikaslearen aurrerapenik ikusi ez badugu, ordu gehiago gehitzea posible izango zela komunikatuko genieke gurasoei bilera hauetan. Ondorioz, gure klaseak eman ondoren, bezeroekin izango ditugun komunikazio-kanalak, gurasoekin izango ditugun bilera pertsonalizatuak izango dira gure lokalean aurrez aurre.

KANALAK

- BANAKETA

Gure zerbitzu guztiak lokalean emango ditugu, izan ere, eskainiko ditugun klase guztiak gure lokalean izango dira, eta ondorioz banaketari izango ditugun harreman guztiak lokalean emango dira.

- SALMENTA

Salmenta kanalak lotura zuzena du harreman-kanalekin. Izan ere, guk eskaintzen duguna produktu fisiko bat ez denez; hau da, zerbitzu bat eskaintzen dugunez eta gainera salmenta ixteko telefonoz edo aurrez aurre egongo garenez, salmenta gurasoekin ordutegia finkatzen dugunean gertatuko da. Momentu horretan bihurtzen baitira gure bezero.

